



IGARTUBEITI BASERRI MUSEOA
HEZKUNTZA PROGRAMA ONLINE
2020-2021





AURKEZPENA

Igartubeiti Baserri Museoko hezkuntza programa aurkezten dizuegu. Covid-19ak sortu duen salbuespenezko egoera berri hau dela eta, lehen hezkuntzako ikasleei zuzendutako jarduera bat prestatu dugu.

Proposamen honek eskola kurrikulumaren edukien osagarri izan nahi du, euskal baserriaren historiaz, bilakaeraz eta eguneroko bizitzaren inguruko hausnarketa bultzatuz.

Helburua:

- Zentzu kritiko batetik onartu eta balioa eman denboran zehar ingurune natural, sozial eta kulturalean gertatu diren aldaketa eta eraldaketei.

ERRESERBAK

Informazio edo erreserbetarako 943725107 telefono zenbakira deitu edo igartubeiti@gipuzkoa.eus helbidera idatzi dezakezue.

Hezkuntza arduraduna: Maddi Etxeberria

Igartubeiti Baserri Museoko ordutegia

03/01-10/31		11/01-02/28	
Asteartetik larunbatera eta jai egunak	Igandeak	Asteartetik ostiralera eta jai egunak	Larunbatak eta jai egunak
10:00-14:00	10:00-14:00	10:00-14:00	10:00-14:00
16:00-19:00			16:00-19:00

TARIFA: 1€ ikasleko

LEHEN HEZKUNTZA (LH2, LH3, LH4 eta LH5)

- ETXETIK ETXERA

Lanketa eremua: Lehengo eta oraingo etxebizitzak.

Helburu espezifikoak:


- Euren ingurunea modu aktiboan behatu eta aztertzea.
- Antzinako baserriak eta gaur egungo etxebizitzak alderatzea.

Deskribapena:

Ikasle bakoitzaren etxeko esperientzia pertsonaletik abiatuta, Martintxoren laguntzaz XVI. mendeko baserrien inguruan gehiago ezagutzeko aukera izango dute, irudi eta soinuen bitartez bertan murgilduz. Bide batez, gaur egun bizi garen etxeak aztertu eta komiki bidez irudikatuko ditugu!

Metodologia:

Egungo egoerara egokitze aldera jarduera hau modu birtualean iritsiko da ikasgeletara, teknologia berriek ematen dizkiguten aukerak aprobetxatuz museoko lankideok ikasgelarekin konektatzeko aukera ere



izango dugu eta nola ez ikasgelan lantzeko ariketak
ere eskura izango dituzue!



ELEMENTU OSAGARRIAK

Irakasleentzako aholkuak

Jarduera talde bakoitzaren beharretara ahal beste egokitze aldera, bilera telematiko baten bitartez irakaslearekin jarduera nola burutu zehaztuko dugu. Honela izan daitezkeen zalantza, arazo edo eskaerei erantzuteko.

Artxibo digitala

Museoak webgune bat dauka (www.igartubeitibaserria.eus) eta bertan informazio ugari jasotzeko aukera dago baserria, landa eta baratzaren inguruan.